

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Entzumen-proba

B1 MAILA

EREDUA: 2-A

ARIKETA	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Proposaturiko denbora
Entzumena	10	20	25 min inguru

1. TESTUA

Jarraian, Euskadi Irratiko berri-saioa entzungo duzu. Guztira 5 berri entzungo dituzu. Aukeratu erantzun egokiena, berrian zer esaten den kontuan harturik. Idatzi galdera bakoitzari dagokion letra beheko laukietan. Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu.

*Erantzun zuzen bakoitzarekin **puntu 1** lortuko da. Denera, **5 puntu**. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.*

1. Zer mezu zabaldu dute azaleko minbiziaren kontrako egunean?

- a) Ez garela eguzkitik ondo babesten.
- b) Eguzkitan jarri aurretik, krema emateko.
- c) Gizartearen %2k bakarrik erabiltzen duela krema.

2. Zer berri kezkarri etorri dira itsasotik?

- a) Lekeitiar bi anaia hil dituztela lan baldintza kaskarrengatik.
- b) Enpresa bereko bi arrantzale hil dituztela atzerrian.
- c) Bi euskaldun hil dira urrutiko itsasoetan arrazoi ezberdinengatik.

3. Zer dela eta agertu dira Kurdistango bi familia Elorrion?

- a) Zaragozan sartu ziren kamioian, Elorrion heldu nahi zutelako.
- b) Bi familien asmoa Euskal Herrira etortzea zen, baina ez zuten nola.
- c) Antza, mafia baten biktimak dira.

4. Zenbat pertsona hil dira Adolfo Ripak izan duen mendi istripuan?

- a) Guztiak, salbu eta bi sherpa.
- b) Gutxienez hiru pertsona.
- c) Taldean zihoazen guztiak.

5. Zer eguraldi egingo du bihar?

- a) Gaur baino egun hobe izango da.
- b) Eguzkia izango da, baina ez du bero handirik egingo.
- c) Kosta aldean hotza egingo du, brisa egongo delako.

IDATZI ZEURE AUKERA ERANTZUN-ORRIAN

2. TESTUA

Jarraian, Euskadi Irratiko irratsaio baten pasarte bat entzungo duzu. Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Aukeratu erantzun egokia, zer esaten den kontuan harturik. Idatzi galdera bakoitzari dagokion letra beheko laukietan.

*Erantzun zuzen bakoitzarekin **puntu 1** lortuko da. Denera, **8 puntu**. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.*

1. Zer aurkitu dute Berrizen?

- a) Euskal baserriaren historia guztia batzen duten baserriaren aztarnak.
- b) Euskal baserritarrak nola bizi ziren batzen duen libururik zaharrena.
- c) Berrizen egon den euskal baserri bakarraren aztarnak.

2. Zer dela eta lan egiten du Teresa Camposek Euskal Herrian?

- a) Euskal Herriko Unibertsitateari esker lortu duen beka bat dela eta.
- b) Ezkondu eta bere jaioterri utzita, hona etorri zelako lan egitera.
- c) Arkeologia ikasketak hemen bukatu nahi izan dituelako.

3. Zertaz konturatu ziren baserriaren lehengo lanak egin zituztenean?

- a) 2014an lortutako aztarnak baino garrantzitsuagoak zirela.
- b) Lortutako aztarnak garrantzia handia zutela.
- c) Aztarnak garrantzitsuak zirela, baina ez beste batzuk bezain garrantzitsuak.

4. Zer jakin dute ikerketa proiektu bati esker?

- a) Baserriaren Erdi Aro aurreko bizimodua zein zen.
- b) Euskal Herrian Erdi Aroa baino lehenago nolako bizimodua zegoen.
- c) Erdi Arotik gaur egun arte, baserriaren garapena zein izan den.

5. Zer teknika erabili dute baserria aztertzeko?

- a) Ikatza aztertu dute.
- b) Hainbat teknika erabili dituzte, arlo ezberdinetakoak.
- c) Arkeologian erabili ohi direnak.

6. Noizkoa da baserria, Teresaren esanetan?

- a) XII. mendekoa.
- b) Erdi Aroa baino lehenagokoa.
- c) Ezin da zehaztu, proba nahiko ez dagoelako.

7. Zer egiten ari dira egindako lanarekin?

- a) Aurkitu dutena ezagutzera ematen ari dira.
- b) Lan gehiago, aurkitu dutena oso gutxi baita.
- c) Dirulaguntzak eskatzen, proiektua finantzatzeko.

8. Non ikusi ahal da egindako lana?

- a) Gerediaga elkarteak duen lokaletan.
- b) Baserrian bertan.
- c) Gerediaga elkartearen web orrialdean.

IDATZI ZEURE AUKERA ERANTZUN-ORRIAN

3. TESTUA

Jarraian, Euskadi Irratiko irratsaio baten pasarte bat entzungo duzu. Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Aukeratu erantzun egokia, zer esaten den kontuan harturik. Idatzi galdera bakoitzari dagokion letra beheko laukietan.

*Erantzun zuzen bakoitzarekin **puntu 1** lortuko da. Denera, **7 puntu**. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.*

1. Hurrengoetatik zein da egia, Islandiaz hitz egiten dugunean?

- a) Gipuzkoa bezain handia dela, baina jende gutxiago bizi dela.
- b) Oso biztanle gutxi dituela hain lurralde handia izateko.
- c) Biztanleen erdiak ere ez duela hitz egiten islandieraz.

2. Zergatik da hain ezaguna Islandia?

- a) Oso paisaje politak dituelako.
- b) Abenturazko pelikula askotan agertzen delako.
- c) Munduko ur jauzi eta sumendi gehienak bertan daudelako.

3. Zer nolako telebista dute Islandian?

- a) Herriaren azalera oso handia denez, telebista handia dute.
- b) Txikia, ikusle potentzialak gutxi dira eta.
- c) Txikia, islandieraz oso jende gutxi hitz egiten duelako.

4. Zergatik egin da famatu Islandiako telebista?

- a) Islandiako aktore batzuk telesail famatu batean agertzen direlako.
- b) Telebistak mundu mailan ezagunak diren pelikula asko finantzatu dituelako.
- c) Bertan egingako telesail bat mundu mailan ezagun bihurtu delako.

5. Zer ondorio ditu BBC4 katean telesail bat agertzeak?

- a) Telesailari, ezaguna izateko, ate asko zabaltzen zaizkiola.
- b) Diru iturriak handiagoak izango direla.
- c) Oscar sariak irabazteko aukera ematen duela.

6. Nola emititzen dira BBC4n telesailak?

- a) Ingelesezt batzuk eta beste batzuk islandieraz.
- b) Atzerriko hizkuntza batean, atzerriarrentzako telebista da eta.
- c) Telesail honen kasuan jatorrizko hizkuntzan ingelesezko azpitituluekin.

7. BBC4n ala Islandiako telebistan lortu zuen ikusle kopururik altuena?

- a) Islandiakoan, populazioaren %98k ikusten baitzuen telesaila.
- b) BBC4n, askoz ikusle potentzial gehiago dituelako.
- c) Berdintsu batean zein bestean.

IDATZI ZEURE AUKERA ERANTZUN-ORRIAN